txintxarri

2020-11-20 OSTIRALA / 1524. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Jantzi txapa, eta ekin!

Norbanako eta entitateek Euskaraldiari ekingo diote gaur, azaroak 20; izen-ematea 24ra arte luzatu dute antolatzaileek / 2-9

pikabea
ASEGURU ARTEKARITZA
Seguro mota guztiak. Eskatu aurrekontua!
EUSKARALDIA ARIGUNEA
ARIGUNE izango gara! gure bulegoan euskaraz lasai hitz egiteko aukera egongo da!
Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 11 18
pikabea@pikabeaaseguruak.com

Gerturatu gure tailerrera:
A2car
Zumaburu kalea 18
20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 24 63
Continental The Future in Motion
100 € arte erregaia DOAN* eduki dezakezu
Neguku gurpilak eta AllSeason:
2 gurpil 40 € 4 gurpil 100 €
Udako gurpilak
2 gurpil 20 € 4 gurpil 50 €
*Abenduaren 15era arte edo stocka amaitu arte

Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan
Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!
barne
605713127
Igaragtegi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus

Ostegun goizetik ari dira lasarteoriatarrak Okendo plazan Euskaraldian parte hartzeko txapak jasotzen. TXINTXARRI

24ra arte izena emateko aukera

Euskaraldiak luzatu egin du dinamikan parte hartzeko izena emateko epea. Datorren asteartera arte izango da horretarako aukera, online edo Okendo plazan egongo den IGUNEaren bidez. Gaurtik hasi eta abenduaren 4ra arte parte hartuko dute aurtengo ariketan

Txintxarri

Iritsi da txapak kolkoratu eta Euskaraldian parte hartzeko unea. Gaurtik hasita eta hamabost egunez, hizkuntza-ohiturak astindu eta ariketa sozialean parte hartuko dute lasarteoriatarrek ere. Herritarren eta entitateen ahozko hizkuntza praktika berriak sustatzeko ariketa soziala da Euskaraldia eta *ahobizi* eta *belarriprest* dinamikan oinarritzen da.

Herritarrek modu kolektiboan hizkuntza-ohiturak astindu eta aldatzeko abiarazitako bideari jarraipena ematea da ostiral honetan hasi eta abenduaren 4an amaituko den egitasmoaren helburuetako bat, baina ez bakarra. Horrekin batera, eta aurtengo berrikuntza gisa, mota guztietako entitateak euskaraz aritzea ahalbidetu eta babesteko erabaki berriak hartu eta urrats esanguratsuak ematea ere badu xede dinamikak, eta baita ere, euskaltzale antolatuen batzorde eta lankidetza harremanak indartu eta egonkortzea. Horretarako, ariguneak sortu dituzte aurten: euskaraz aritzeko guneak. Gune horiek, euskaraz aritzeko edo hitz egiteko aukera bermatuko diete entitateei – eta norbanakoei–. Bi motatako ariguneak bereizi dituzte; alde batetik, barne-ariguneak daude. Horiek dira entitate baten baitan ohiko dinamika duten eta kide guztiek euskara gutxienez ulertzen duten taldeak. Bestalde, kanpo-ariguneak ere badaude. entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonek osatzen dituzte horiek.

Bakoitzak bere eremuan, ingurukoarekin egingo du gaurtik aurrera: gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan.

IZEN-EMATEAK

Erronkametroek gora egin dute egunotan. Iragan asteburuan, esaterako, 100 izen-emate baino gehiago bildu ditu Lasarte-Oriako Euskaraldiak. Gaur-gaurkoz, 1.717 lasarteoriatarrek bat egin dute ostiralean hasiko den ariketa sozialarekin. Horietatik 1.242 dira *ahobiziak* eta 475, berriz, *belarriprestak*. TXINTXARRI-k ostiraleran argitaratzen duenez aldizkaria eta ostegunean bidaltzen duenez inprentara, azaroaren 18ra arteko datuen berri eman du. Euskal Herri mailako datuak, aldiz, hauek dira: guztira 147.000 lagunek eman dute izena; horietatik %79ak *ahobizi* gisa eta %21ak *belarriprest* bezala. Datu horiek kontuan hartuta, lurraldez lurraldeko datuei erreparatuz, %9a arabarrak dira, %32 bizkaitarrak, %44 gipuzkoarrak, %12 nafarrak eta %2a Ipar Euskal Herrikoak.

Koronabirusak ere izan du eraginik Euskaraldian. Hain zuzen ere, apirilean *Etxealditik Euskaraldira* ekimena izan genuen. Alde batetik, etxekoekin eta etxetik ditugun hizkuntza-ohituren gainean pentsaraztea izan zuen helburu dinamika hark; eta beste alde batetik, euskararen erabilera sustatzea, horretarako bitartekoak eskainiz.

Izena emateko epean ere eragin du koronabirusak. Euskaraldiaren antolatzaile nagusi diren Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak jakinarazi dutenez, COVID-19ak eragindako egoera medio, herritarrak informatzeko eta izena emateko zailtasunak izaten ari direla helarazi diete hainbat eta hainbat herritako dinamikaren antolatzaileek, hortaz, izena emateko epea luzatzea erabaki dute. Azaroaren 24ra arte izango dute herritarrek ariketa sozialean izena emateko aukera, asteartea, 23:59ak arte.

Horretarako, bi modu izango dituzte lasarteoriatarrek. Alde batetik, *http://izenematea.euskaraldia.eus/* atariaren bidez, eta bestetik, berriz, Okendo plazan egongo den IGUNEan. Astelehen eta asteartean Okendo plazan egongo da izen-emateak biltzen, 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara.

IGUNE IBILTARIA

Lasarte-Oriako Euskaraldiak egitasmo berezi bat izan du martxan. Herritarrek ariketa sozialean parte hartzera animatu eta izen-emateak dinamizatzeko helburuarekin, IGUNE ibiltaria ibili da Lasarte-Oriako txoko ezberdinetan barrena. Asko izan dira informazio gune horretara gerturatu diren lasarteoriatarrak. Guztira 200 izen ematetik gora bildu dituzte IGUNEan, bertako arduradunek azaldu dutenez. Horrez gain, photocall koloretsu bat ere izan du IGUNEak, eta asko izan dira bertan argazkiak ateratzera animatu diren *ahobizi* edo *belarriprestak*.

TXAPAK JASOTZEA

Izen-emate epea ixtear, egitasmoan parte hartzeko egunak datoz orain. Horretarako, *ahobizi* edo *belarriprest* rolean arituko diren herritarrek rol horiek bistaraziko dituzten txapak eskuratzeko aukera izango dute. Atzo, ostegunean, hasi ziren antolatzaileak txapak banatzen, baina gaur, astelehenean eta asteartean ere izango da horretarako aukera. Horretarako, Okendo plazara gerturatu beharko dira herritarrak, goizez edo arratsaldez. Goizez 10:00etatik 13:00etara jarriko dira Euskaraldiko arduradunak txapak banatzen eta, arratsaldez, berriz, 16:00etatik 19:00etara. Hortaz, oraindik izenik eman ez duen eta dinamikan parte hartu nahi duen herritarrik bada, gaur, hilak 20, edo datorren asteko astelehenean eta asteartean izango dute horretarako azken aukera, hilak 23 eta 24.

Erronka, hiztun gehiagok eremu gehiagotan euskaraz egitea

Lasarte-Oriako biztanleen ia erdiak dira euskaldunak; portzentajea nabarmen altuagoa da belaunaldi berrienetako kideen artean. Euskararen kaleko erabilera, oro har, igo egin da azken hamarkadetan, adinekoen artean izan ezik

Txintxarri

Udalak 2001. urtean argitaratu zuen *Euskararen egoera Lasarte-Orian* liburua, XX. mende amaierara arteko datu soziolingustikoak jasoz. Lan hori oinarri hartuta, Udaleko Euskara zerbitzuak txosten bat osatu du, bertan jasotzen zen informazio ugari zetorren bezala adieraziz eta beste hainbat datu eguneratuz. Zerbitzuak helarazi dizkio datu horiek Txintxarri aldizkariari.

Albistearen eskuinaldean grafikoki ikus ditzakezue nolakoa den lasarteoriatarren hizkuntzazko gaitasuna –2016. urtera arteko datuen arabera– eta euskararen kaleko erabileraren bilakaera nolakoa izan den –laranja kolorez, azpiko taulan–. Azken adierazle horri helduta, nabarmentzekoa da 1990. urtetik hona –2018ko datuak dira Euskara zerbitzuak jaso ahal izan dituen azkenak– elkarrizketa gehiagotan hitz egiten dutela euskaraz haurrek, gazteek eta helduek, portzentaje altuena %30era iristen ez bada ere. Adinekoen artean, ordea, kaleko erabilera jaitsi egin da denboratarte horretan.

Hizkuntzazko gaitasunari dagokionez, 2016ra arteko datuak eskuetan, herritarren ia erdiak dira euskaldunak, %45,4, 1981ean baino %21,5 gehiago. Erdaldun elebakarren portzentajea, dena den, handia da oraindik: %36,4.

Herria galera prozesu batean murgilduta egon da, bereziki, XIX. mendearen erdialdetik 1975. urtera arte. Azken hamarkadetako berreskurapeneko prozesuaren ondorioz, askoz hobea da gaur egun euskarak herrian duen osasun maila 1975ean baino, hiztun gehiago dituelako eta eremu gehiagotan erabiltzen delako baita ere. Dena den, euskara hizkuntza normalizatua izan dadin herrian, erabiltzeko eremuak eta hiztunak irabazten jarraitu behar du.

Hizkuntzazko gaitasuna, 2016 (adin-taldeka)



Hizkuntzazko gaitasuna	Euskaldunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Biztanleak (>2 urte)
1981	3.986	%23,9	2.001	%12	10.696	%64,1	16.683
2001	6.052	%36,8	3.102	%18,9	7.284	%44,3	16.438
2016	8.188	%45,4	3.290	%18,2	6.569	%36,4	18.047
Aldea (1981-2016)	+ 4.202	+ %21,5	+ 1.289	+ %6,2	- 4.127	- %27,7	+ 1.364

Erabilera kalean	1990-1999	2000-2009	2010-2018*	Bilakaera
Haurrak	%20	%28	%28,9	+%8,9
Gazteak	%9,1	%22,6	%29,5	+%20,4
Helduak	%10,4	%15,2	%16,5	+%6,1
Adinekoak	%15,9	%13,2	%11,7	-%4,2

Euskaraldiaren erroak

Euskaraldiaren 2. edizioa hasiko da gaur, ostirala. Ezin ahaztu aurretik egin ziren ekimenak. Bilbotik Lasarte-Oriara eta gure herritik Euskal Herrira ariketa soziolinguistiko hori sortzeko eman ziren pausoen errepaso laburra egin dugu

2015 **Bi-Lingual Transituak Performancea (Bilbo)**

Lutxo Egiak 31 egun euskaraz egin zituen eta beharrezkoa zenean ingelesa erabili zuen

2016 **Egian euskaraz bizi nahi dugulako (Donostia)**

Bi hilabetez, astez asteko txandetan, euskaraz bizitzeko saiakera egin zuten egiatarrek

2016 **Añorgan euskaraz bizi nahi dugulako (Donostia)**

Añorgako bizilagunak hilabetez auzoko eguneroko bizitza euskara hutsez egiten saiatuko gara

2016 **Guk 75 ordu euskaraz (Agurain, Araba)**

Euskara ahaldundu eta aktibatzeko helburuz ekimena egin zuten

2016 **9. Euskararen Maratoia. Irten Armairutik! 40 egun euskaraz! (Lasarte-Oria)**

Ahobizi eta belarriprest izenak lehenengoz erabili ziren
Sei astez, txandaka herritarrek euren rolari kasu eginez jokatu behar zuten
Pello Jauregik azterketa soziolinguistikoa egin zuen

2017 **Udaltop (Lasarte-Oria)**

Gizartearen aktibazioa eta hizkuntza-ohituren aldaketa egiteko lehen oinarriak ezarri ziren

2017 **Mintegia (Donostia)**

200 bat lagun bildu ziren Euskaraldiaren antolaketako lehen urratsean

2018 **Udaltop (Lasarte-Oria)**

Euskaraldia puntuari erantzunak argitu eta datorrenari buruzko galderak argitzen saiatu ziren

2018 **EUSKARALDIA (Euskal Herria)**

2020 **EUSKARALDIA 2. EDIZIOA (Euskal Herria)**

Ezker-eskuin, Ttakun KEko lehendakari Mari Karmen Ormazabal eta HPSko Euskara Sustatzeko zuzendari Estitxu Alkorta. TXINTXARRI

Ereindako haziagatik jasotako saria

Ser kateko Radio San Sebastian irratiak Bikaintasun saria eman dio Ttakun Kultur Elkarteari 'Euskara' kategorian, Euskaraldiaren sorreran hazia jarri eta duela 29 urtetik euskara eta euskal kultura normalizatzearen alde egiten ari den lanagatik

Iñigo Gonzalez Sarobe DONOSTIA

"Jende gutxik daki Euskaraldia Lasarte-Orian sortu zela oinarri-oinarrian", nabarmendu zuen Ttakun KEko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek astearteko eskertza hitzaldian. Berak jaso zuen saria, Hizkuntza Politika Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendari Estitxu Alkortaren eskuetatik. Bi lasarteoriatar horiek partekatu zuten oholtza *Euskara* kategoriako irabazleari aitortza egiteko unean.

Ser kateari eta Radio San Sebastian irratiari eskerrak eman eta gero, Ormazabalek gogoratu zuen Ttakunek 29 urte bete dituela azaroaren 16an, eta euskararen normalizazioaren alde lanean hasi zenetik kezkatu diotela elkarteari euskararen ezagutzaren eta erabileraren igoeren erritmo desberdin horiek.

Testuinguru horretan kokatu zuen orain Euskal Herri mailan ezagunak diren *ahobizi* eta *belarriprest* figuren sorrera. "Lasarte-Oriako Udalaren eta hainbat herritar eta eragileren laguntzarekin, urteak daramatza Ttakun KEk Euskararen Maratoia antolatzen; ekitaldi horren baitan sortu ziren bi rol horiek, 40 orduz euskaraz aritzetik gure buruei 40 egunez gauza bera egiteko erronka jarri genienean Lasarte-Orian". "Esperimentu gisa hasi zena, ikerketa bihurtu zen, EHUrekin eta egun gutxi barru Abbadia saria jasoko duen Pello Jauregik gidatuta".

Herrikoa esportatu

Duela lau urte egindako ekimenak "emaitza positiboak" eman zituela nabarmendu zuen Ormazabalek: "Gogotsu ekinez, herrian frogatu genuen posible dela euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza-ohiturak aldatzea". Ariketaren arrakasta ikusita, Lasarte-Oriako eredua Euskal Herrira esportatzeari buruz hasi ziren hizketan. "Herri mailan egindakoa, zergatik ez nazio osora zabaldu?".

Amaitzeko, urte hauetan guztietan Ttakun Kultur Elkartearen inguruan lan egin eta parte hartu duten pertsona guztiei eskerrak eman zizkien Ormazabalek. "Sari honen zati bat zuentzako ere bada".

Radio San Sebastian irratiak hirugarren urtez antolatu du ekitaldia. *Ikerketa* saria Viralgen enpresak jaso du; *Musika*-koa, La Oreja de Van Gogh taldeak; *Kirolak* atalekoa, Hondarribia Arraun Elkarteak; *Artea eta Kultura*-koa, Chillida Leku museoak; *Enpresa* kategoriakoa, Grupo Uvescok; *Gastronomia* atalean, Petritegi sagardotegiak; *Eragin soziala* atalekoa, Gipuzkoako osasun langileek; *Humanitate eta Komunikazioen Iñaki Gabilondo* saria, *Patria* telesailak; eta, entzuleena, Zaporeak egitasmoak.

Pello Jauregi. TXINTXARRI

Abbadia saria emango diote Pello Jauregiri

Pello Jauregi ikerlariak (Pasaia, Gipuzkoa, 1958) jasoko du Antton Abbadia saria aurten. Euskararen normalizazioaren aldeko lanetan ari diren pertsona edo elkarteen jarduna aitortzeko sortu zen, 1996. urtean. Gipuzkoako Foru Aldundiak emango dio saria Jauregiri abenduaren 1ean, asteartearekin.

Ikertzaile gipuzkoarrak zuzendu zuen Lasarte-Orian 2016. urtean egin zen *40 egun euskaraz* herri erronkako ikerketa: frogatu zuen euskararen erabilera bultzatzeko beharrezkoa dela euskal hiztunentzako baldintza egokiak prestatzea. Orduan entzun genituen aurreneko aldiz *ahobizi* eta *belarriprest* hitzak.

"Gure indarra gainditu duen energia soziala da Euskaraldia"

KIKE AMONARRIZ EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA

Euskaraldiaren atarian, ekimenaren inguruan aritu da Kike Amonarriz. Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak euskara elkarteen eboluzioa eta pandemiaren ondorioak ere hartu ditu ahotan

Garbiñe Ubeda ESKUALDEA

Zein panorama duzue euskara elkarteetan eta Topagunean?

Panorama zaila eta konplikatua da denontzat. Egia da oso egoera zaurgarrian utzi gaituela pandemiak, eta badagoela kezka bat eta ziurgabetasun bat, batez ere datorren urteari begira. Tokiko komunikabideetan ere, TOKIKOM-ek erakutsi duen gisan, handiak dira publizitatean eta abarretan eragin dituen kalteak. Aisialdi taldeetan ere nozitu ditugu, Plateruenaren itxiera ikusi dugu... Egoera berri honek lehendik zetozen zailtasunak areagotu ditu, baina zailtasun horiei aurre egiteko gogoa ere handitu du. Pandemiak trinkotu egin du mugimendua, eta horrek azken urteotako herrialde batzarrik jendetsuenak izatea ekarri du, edota ekonomi eta aisialdi batzorde bana martxan jartzea.

Egoera zail honi aurre egiteko gogoa ez ezik, gaitasuna ere nabarmenduko nuke. Hainbat egitasmo bertan behera utzi behar izan dira, baina beste batzuk berrasmatzeko edo egokitzeko ahalegin handia egin da. Eta aurretik ere, euskara elkarteak etengabeko hausnarketa eta egokitzapen prozesuan bizi ziren. Hain zuzen, izurritearen aurretik egindako hausnarketa estrategikoan dagoeneko ikusi zen euskara elkarteen mugimenduak egoera sozial politiko eta linguistikora egokitu behar duela, eta are gehiago trinkotu behar duela, funtzioak eta eskaintzak egokitzearekin batera.

Egokitzeaz ari zarenean, erdaldunez ere ari zara?

Euskara elkarteena euskaldun euskaltzaleen mugimendua izan da batez ere. Hor ere baditugu mintzalagunak eta abar. Gure hausnarketari erdaldunen faktorea erantsi diogu, bai. Hor indar berezia egin nahi dugu. Eskaera Nafarroatik etorri zen, baina gainerako herrialdeetan ere nabarmendu zen premia hori: gure helburu eta amets hau erdaldunei jakinarazi eta haiekin partekatu beharra dago.

Urteak joan dira euskara elkarteak sortu zirenetik. Gaur ez gaude orduko egoeran. Artean, administrazioek hainbat zeregin hartu dituzte beren gain eta euskara elkarteek ikusgarritasuna galdu dutela ematen du. Norantz ari dira eboluzionatzen?

Erakunde guztiek izaten dute bilakaera eta bizi zikloa. Euskara elkarteak egoera jakin batean sortu ziren –zorionez han nintzen–, ilusio handia zegoen, eta berrikuntza handia ekarri zuten. Orduko giro soziopolitikoan euskara eta euskal komunitatea erdigunean jarri zituzten, elkarte zabalak eta erabileran zentratuak proposatu zituzten, eta mugimendu sozial handia eragin zuten. Gero egonkortu egin ziren eta profesionaltasuna ere ekarri zuten neurri batean. Bilakaera guztietan bezala, horietarik batzuk alde batera gelditu dira, eta beste batzuk aldatu egin dira, baina badago eraberritu, egokitu eta berrindartu behar dugunaren kontzientzia. Azken boladan ere prozesu berri eta interesgarriak ari dira sortzen. Elgoibarren, esaterako, euskalgintza eta kulturgintza uztartzeko planteamendua ari dira aztertzen. Iparraldean, Euskaraldian oinarrituta eta testuinguru horretan, erabilera ardatz izango duen mugimendu bat artikulatzeko ahaleginean ari gara. Iruñerrian proiektu oso indartsua martxan jartzeko gogoz daude, eta Galtzaundi, berriz, Tolosako talde izatetik Tolosaldeko talde izatera pasa da, eta euskararen mahaia bultzatzen ari da.

Alegia, arnasberritu nahia ageri da. Euskaraldiak mugimendu berri bat sortu duela ikusten dugu. Topagunea 90 herri edo eskualde ingurura iristen da eta Euskaraldia 400 herritan baino gehiagotan egingo da. Gure indarra gainditu duen energia soziala da, beste erakunde eta eragile sozialei esker. Erronka da, nola artikulatu eta egonkortu. Hainbat tokitan hasi dira talde berriak sortzen, Euskaraldiko multzo horiek egonkortzeko, egituratzeko... Salto bat ematen denean, eta Euskaraldia hori bera da, aukera eta ilusio berriak sortzen direla adierazten digu horrek. Sortuko diren antolamenduak, diren modukoak direla, ez dira 90eko hamarkadakoak bezalakoak izango. Eta ordutik ditugunak egoera berrira egokitu beharko ditugu.

COVID-19 izurritearen ondorioz osasunak eta lanak lehentasun erabatekoa hartu duten honetan, zein da transmititu behar den mezua, euskara dela-eta?

Mezu bikoitza transmititzen saiatzen gara. Bata enpatiazkoa da. Egoera zail batean gaude, baina egoera zail horretan gizarte sektore asko daude. Horren jakitun gara eta praktika ere horretara egokitu behar dugu. Eta esango nuke, gainera, hainbat kasutan bat etorri garela sektore batzuekin. Adibidez, Euskaraldiaren barruan arigunearen planteamendua egin denean, herri askotan oso bat egin da merkataritza txikiarekin. Bat egin dugu egoera zail honetatik ateratzeko dauden behar eta aukera horiekin, eta euskara bultzatu beharrarekin lotu ditugu. Merkataritza txikiak ikusgarritasuna eta komunitatearekin bat egitea behar du, eta guk ere merkataritza txikia behar dugu, euskararen erabileraren bermerik handiena delako. Hortaz, bidelagun izan gaitezke prozesu horretan. Merkatari askok oso ondo hartu dute Euskaraldia orain egitea eta guretzat ere bada behar bat haiek gurekin izatea.

Bigarren mezua, euskararen biziberritzea, herri honek aurrera egiteko behar eta gogoarekin lotzea genuke. Aurrera aterako bagara, euskara ere lagungarri izan behar zaigu. Eta euskara aurrera aterako bada, gizartearen beharra ere badugulako izango da. Hortik landu dugu mezua. Gero, kontuan hartu behar da batzuentzat beti direla garai txarrak euskarak aurrera egin dezan.

"GURE AMETS HAU ERDALDUNEKIN PARTEKATU BEHARRA DAGO"

COVID-19ak ezin du euskararen biziberritze prozesua galgatu. Horregatik da garrantzitsua hemendik aurrera antolatuko diren estrategietan ere euskararen aldagaia erdigunean egotea. Hori adierazi nahi izan genuen Kontseiluak bultzatutako *Geroa euskaratik* kanpainan. Mezua argia da: ohartzen gara zein den egoera, baina geroa eraiki behar dugu eta euskaratik eraiki behar dugu.

Euskaraldiak eta izurritearen aurkako neurriek (elkarren arteko tartea zaintzea, musukoa, ordutegi murriztuak...) ez dirudite bateragarriak. Zer nolako intzidentzia espero da aurtengo Euskaraldian? Non gelditu ko da arigunearen kontzeptu berria?

Lehen Euskaraldia norbanakoengan zentratu zen, baina orduko diseinuan bazen bigarren honetan norbanakoez gain entitateetara ere jotzeko asmoa. Halaxe sortu zen *arigunea* edo euskaraz egiteko guneen kontzeptua. Pandemiak galga handia ekarri du, egia da. Hala ere, zailtasunak zailtasun, eman den aurrerapausoa eta lortu dena ikaragarria izan da.

Egin kontu. Itxialdia, uda, batzorde batzuk sortzeko denborarik eza, beste batzuen ahulezia, eragozpen horiek denak izan arren, milaka entitatek eman dute izena, eta 25.000 arigune inguru sortuko dira. Hor arituko direnak 70.000 lagun baino gehiago izango dira. Aurreko Euskaraldian 225.000 lagunek parte hartu zutela kontuan izanda, kopurua ikaragarria da. Aurtengoa, mugak muga, Euskaraldi indartsua izango da eta hurrengoari begira oso bide-erakusle ona. Espero dezagun hurrengorako baldintzak normalak izatea eta ariketa ondo frogatuta izatea; ohitura izango dugula eta jauzi kualitatiboa egingo dela.

Behin eta berriz azpimarratu duzue 'belarriprest' eta 'ahobizi rolak' ez direla norberaren jakintzan oinarritzen, euskararekiko jarreran baizik. Esplika ezazu.

Euskaraldia oso planteamendu berritzailea izan zen eta masiboki zabaldu zen. Ez da erraza lehen aldiz egiten dena gaizki-ulerturik gabe gizarteratzea. *Ahobizi* eta *belarriprest* portaeren mailaketa bat da. Denok gara *belarriprest*, baina horien artean badira batzuk konpromiso sakonagoak hartzen dituztenak, eta horiei *ahobizi* deritzegu. Ez du lotura zuzenik

Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria da Kike Amonarriz tolosarra. AIURRI

ezagutzarekin. Izan liteke pertsona bat euskaraz oso ondo dakiena, baina bere baldintzak direnak direlako, *belarriprest* rola hartzen duena. Eta izan daiteke pertsona bat, bere euskara maila mugatua izanagatik ere, baldintzak halakoak dituelako, *ahobizi* rola hartuko duena. Esan behar da bestalde, *belarriprest* figuraren gutxiespena-edo sumatu zutela batzuek. Hori ekidin egin nahi da, argi eta garbi.

***Belarriprest* figura gakoa dela diozue.**

Hala da. Hau ez baita euskararen aldekotasuna erakusteko kanpaina bat, ariketa praktiko bat baizik, ahalik eta hobekien betetzeko kontu bat.

Inportantea da nabarmentzea rolak ez direla bat aktibo eta bestea pasibo. Biak dira aktiboak, gertatzen dena da, aktibotasun hori mailakatu egiten dela. *Ahobizi* batek adierazten duena da, ahal duen guztietan euskaraz egingo duela, lehen hitza beti euskaraz egingo duela eta euskaraz ulertzen dutenekin beti euskaraz egin eta jarraituko duela. Oso jarrera proaktiboa da. *Belarriprestak* adierazten duena da, berarekin euskaraz egin nahi duten guztiak euskaraz egitera animatzen dituela, eta horrez gain, bakoitzak erabakiko du noraino egin dezakeen eta egin nahi duen, baina *belarriprestek* ere jarrera aktiboa izan dezakete, ahal duten guztietan eta ahal duten guztiekin euskaraz egiteko. Bi rolak dira garrantzi-maila berekoak.

Euskaraldiak egingo al du kanpainarik erdaldunentzat?

Aurten ahalegin berezia egingo da zertan ari garen eta beraiek ere zertan lagun dezaketen adierazten. *Ariguneak* osatzeko ezinbestekoa zen entitateko zuzendaritzaren oniritzia, babes esplizitua lortu nahi baitzen, euskaraz lasaitasun osoz aritzeko. Zuzendaritza horietan erdaldunak ere badaude noski, eta horiek asko lagun dezakete. Erdaldunek beren inguruan euskaraz egitea bultza dezakete. Guretzat inportantea zen beraiekiko azalpena ematea. Babestea eta zertan ari garen ulertzea eskatzen diegu. Horrekin batera, *belarriprest* izateko gonbita ere badago.

Horrek bide berri bat zabaltzen duela iruditzen zaigu. Une honetan Pello Jauregi eta beste hainbat egiten ari diren ikerketaren ondorioz, ulerrizketa metodologia ari da zabaltzen. Guk badakigu jakin, egoera batean gutxienez denok ulertzen badute, zer nolako posibilitate berriak sortzen diren.

Komunikazio kanpainan gaztelaniaz eta euskaraz egin dira spotak, eta mezuak diferenteak dira. Topagunean ere ikusten dugu premia hori: erdaldunekiko komunikazioa indartu egin behar dela, baina oro har, ez Euskaraldian bakarrik. Nafarroatik oso garbi heldu zaigu eskaera, eta beste herrialdeetan ere garbi ikusi da. Gure bilakaera honetan, euskaldunengan zentratutako mugimendua izan da euskara elkarteena eta hala izango da hemendik aurrera ere, baina erdaldunekiko harremanak, komunikazioa, informatzea, animatzea, hori ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu.

Positiboki amaitzearren, Tolosaldean oso datu onak lortu ditu euskararen erabilerak. Zer du Tolosak esportagarri?

35 urtez egin dira kale neurketak, eta 2019an lehen aldiz, euskara gaztelania baino gehiago entzun da Tolosako kaleetan. Perspektiba historikoa landu genuen eta ohartu ginen inongo zalantzarik gabe esan zitekeela, 100 urtean estreinakoz gertatu dela horrela, eta bazela komunikatzeko eta ospatzeko puntu bat.

COVID-19a baino lehen, ospakizun erraldoi bat egitea pentsatu genuen. Gero, mugatu egin behar izan genuen. Ekitaldi bat egin genuen Leidorren, berri ona ospatzeko, eta bide batez, Euskaraldia martxan jartzeko, Tolosaldean ikusten genituen etorkizuneko erronkak nabarmentzeko. Horrelako prozesu positiboak eskualde askotan daude, eta gurean, ezer erakustekotan, esango nuke lan jarraituaren beharra dela nabarmenena, bai euskara elkartetik, bai udalaren aldetik, bai hedabideetatik eta abar. Zenbat eta modu koordinatuagoan egin, orduan eta emaitza hobeak lortzen dira, eta eskualdearen ikuspegia ere erantsiko nioke. Tolosa eta Villabona maila ertaineko bi herri ditugu eta inguruan herri euskaldun asko dugu, arnasgune asko. Honek erakusten digu, arnasguneek arnasgune izaten jarraitzeko, ezinbestekoa dela hirigunea ere euskalduntzen joatea; baina hiriguneak euskalduntzen joateko, ingurune euskaldunagoen babesa behar dutela. Erlazio eta interakzio horrek lagundu egin digu Tolosaldean.

"Mundu mailako krisi honi euskaraz egingo diogu aurre"

ESTITXU ALKORTA EUSKO JAURLARITZAKO EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARIA

Gaur hasiko den Euskaraldia lasarteoriatar batentzat "inorentzat baino bereziagoa" dela azpimarratu du, herrian sortu baitziren lehen 'ahobiziak' eta 'belarriprestak'

Iñigo Gonzalez Sarobe

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetza da gaur hasiko den Euskaraldiaren antolatzaile nagusietako bat. Hizkuntza-ohiturei astindua ematea da ariketa sozialaren helburu nagusia, edo, bestela esanda, euskararen erabilera sustatzea. Horretaz arduratzen da Estitxu Alkorta (Lasarte-Oria, 1974), sail horretako Euskara Sustatzeko zuzendaria baita 2017. urtetik.

Euskaraldia hasi eta aurreko egunetan hitz egin du Txintxarri aldizkariak Alkortarekin, luze eta zabal: antolakuntza, bigarren edizio honen erronka eta berrikuntza nagusiak, COVID-19aren pandemiak ariketa sozialean izan dezakeen eragina...

Gaur hasiko da Euskaraldiaren bigarren edizioa, azaroak 20. Parte hartuko duzu? *Ahobizi*, edo *belarriprest*? Ariketa sozialari ekiteko gogotsu?

Bai, parte hartuko dut, aurreko edizioan bezala, *ahobizi* moduan eta oraingo honetan, laneko *arigune* batean. Zenbait pertsonekin hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahalegina egingo dut ariketak irauten duen bitartean, azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

Euskal hiztun eta herritar bezala, zer esan nahi du Euskaraldiak zuretzat? Zerk motibatzen zaitu parte hartzera? Zertarako ikusten duzu erabilgarri?

Lasarteoriatar euskal hiztun batentzat, Euskaraldia beste inorentzat baino bereziagoa da. Hemen jaio zelako ekimena eta hemen sortu zirelako lehen *ahobiziak* eta *belarriprestak*. Zentzu horretan, harro egon gaitezke guztion artean lortu dugunaz. Garai zaila da, baina Euskaraldia martxan jartzeko indarra atera dugu. Herri gogoa, beharra eta ilusioa indartsuak dira. Eta horregatik heldu gara honaino. Euskaraz bizi nahi duen herria gara eta, beraz, gure hizkuntza aukerak praktika bihur ditzakegu. Hori da Euskaraldiaren helburua: ahozko hizkuntza ohiturak aldatzea.

Aurreko galdera-sorta hori bera egingo dizut orain, Estitxu, baina Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari gisa erantzun ditzazun.

Euskaraldiak berdina esan nahi beharko luke herritar batentzat zein kargu publiko batentzat. Nik behintzat ezin dut bereizketa hori egin. Beraz, aurretik esandako guztiak berresten ditut. Egia da nire karguak aukera paregabea ematen didala eragile ezberdinekin egoteko, haiekin lan egiteko, Lasarte-Orian sortu zen ekimena lau haizetara zabaltzeko eta euskara euskal herritar guztion ahotara eramateko eta, hori guztia, karguak eskaintzen didan pribilegio bat da.

'Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan' da bigarren edizio honen leloa. Gaur egun bizi dugun egoeran, mundu mailako pandemia batean tarteko, ez dirudi erraza hori egin ahal izatea hilabete amaierara arte gutxienez, ez behintzat duela bi urte egin genuen moduan. Mugikortasunean mugak, distantzia fisikoa mantendu beharra, solaserako aproposak izan zitezkeen ostalaritza establezimenduak itxita, adibidez... Eragin dezake horrek guztiak Euskaraldiaren helburuetan eta irismenean?

Pandemia honek mota guztietako mugak jarri dizkigu. Aurrez aurreko harremanetan, ekimenaren beraren zabalkundean, txapen banaketan, eta abar. Baina oztopo guztien gainetik, Euskaraldia antolatu, antolatu dugu eta milaka herritarrok hartuko dugu parte. Hori da, zalantzarik gabe, edizio honen arrakasta. Euskaraldiaren helburuak bete al diren jakiteko edo Euskaraldiak gizartean izan duen inpaktua jakiteko, pixka bat itxaron beharko dugu. Aurreko edizioan bezala, bi ikerketa egingo direlako aurreko bi faktore horiek aztertzeko.

"GARAI ZAILA DA, BAINA EUSKARALDIA MARTXAN JARTZEKO INDARRA ATERA DUGU"

'Ahobizi' edo 'belarriprest' izateko gakoa ez dago jakintzan, jarreran baizik. COVID-19aren pandemiak eragin ditu, besteak beste, jarrera eta gogoa gutxitu ditzaketen sentimendu asko: kezka, ezinegona, ziurgabetasuna... Euskaraldia bezalako ariketa bati behar bezala eusteko indarra dugula iruditzen zaizu?

Bai. Bestela Euskaraldia nekez antola zitekeen. 421 herritan sortu dira batzordeak eta 25.000 arigunetik gora osatu dira 6.800 entitatetan. Hori guztia ez litzateke posible izango indarra eta ilusioa ez balego. Beraz, ariketa egiteko izena eman dugun milaka herritarrok, egunerokoa horrenbeste aldatu zaigun arren, ariketari ilusioz eusteko asmo zintzoa azaldu dugu. Azken finean, ez dezagun ahaztu, ariketa edo praktika bat dela Euskaraldia.

Euskaraldiaren antolatzaileetako bat da Hizkuntza Politika Sailburuordetza. Zuen talaiatik, nolakoa izan da bigarren edizio hau gauzatzeko prozesua? Zertaz arduratu zarete?

Alde batetik, errazagoa izan da, zerotik abiatzen ez ginelako eta eskarmentu bat bagenuelako. Elkarlanean ibilbide bat hasita genuen eta Euskal Herriko herri askoren babesa ere bagenuen. Aurreko edizioaren gakoa elkarlana izan zenez, bigarren edizio hau ere elkarlanean ardaztu dugu. HPS Hizkuntza Politika Sailburuordetza, Euskaltzaleen Topagunearekin batera antolatzaile nagusia izanik, gure lana edizio honen ezaugarria nagusiak adostea eta Nafarroako, Iparraldeko eta Euskalgintzaren arteko koordinazioa lantzea izan da. Horrez gain, dinamizatzaile

Estitxu Alkorta, udaletxe aurrean, Euskaraldia iragartzeko afixa atzean duela. TXINTXARRI

sare egonkor bat bermatzea, Topagunearekin batera komunikazio estrategia orokorra diseinatzea eta izena ematearen eta txapen banaketaren logistikan ere laguntzea izan dira gure ardura nagusiak. Eta jakina, Eusko Jaurlaritzaren eragin esparrua baliatzea Euskaraldia sustatzeko.

Zer moduzkoa izan da Euskaltzaleen Topagunearekin eta koordinazio mahaiko gainontzeko erakundeekin elkarlana? 2019an Lasarte-Orian egin ziren Udaltop jardunaldietan horri buruz jardun zineten Topaguneko kide Jasone Mendizabal eta zu zeu, bide bateratu horretan topatu zenituzten oztopoak aipatuz eta horietatik ere ikas zitekeela aldarrikatuz.

Oso izaera ezberdineko erakundeak izanik, erritmoak egokitzea egokitu zaigu bioi. Administrazio publiko batean erabakiak azkar hartu daitezke, baina erabaki horiek praktikan jartzeak burokrazia handia eskatzen duenez, prozesua denboran luzatu egiten da. Kudeaketa pribatua duen elkarte baten kasuan aldiz, alderantziz gertatzen ohi da. Erabakiak hartzeko denbora gehiago behar izaten dute baina erabaki horiek praktikara eramatea askoz ere errazagoa da. Bestalde, ekimena beraren komunikazioa eta diskurtsoak adostea eta zaintzea ezinbestekotzat jo genuen; hasiera-hasieratik, horren alde egon ginen biok. Oztopo horiek aldez aurretik aurreikustea eta prozesuan zehar sortu izan diren gaizki-ulertuak mahai gainean jartzea eta konpontzea ikasbide bat izan da guztiontzat.

Aurtengo Euskaraldian, *ahobiziek* eta *belarriprestek* ez ezik, mota guztietako entitateek ere parte hartuko dute, *ariguneak* sortuz. Zer bilatu nahi da enpresa, elkarte eta bestelako eragileen parte hartzearekin?

Euskaraz lasai aritzeko espazioak sortzea bilatu nahi izan da. Lanean, taberna batean edo kirola egiten. Horretarako, mota guztietako erakundeei aukera zabaldu zaie, euren eremuan espazio horiek sustatu eta babestu ditzaten. Bi helburu lortu nahi izan dira *ariguneen* bitartez: batetik, herritarrei, denda batean edo banku batean sartzerakoan, eremu horretan edonorekin euskaraz lasai aritzeko aukera dutela adieraztea. Eta bestetik, *ariguneen* bitartez hizkuntza praktika berriak modu kolektiboan martxan jartzeko aukera ematea.

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala Euskal Herriko 421 udalerritan egingo da eta 25.000 arigunetik gora sortu dituzte 6.800 entitatek (galderak bidaltzerakoan norbanakoen izen-ematea itxi ez denez, datuak ez ditut sartu, ez baitira definitiboak gaur-gaurkoz). Nola baloratzen duzue parte hartzea? Kontuan hartuta "azken bultzada" eman behar zitzaion urte honetako gorabehera guztiak, ia bi hilabeteko itxialdi oso zurrun bat tarteko.

"ZENBAKIAK GORA, ZENBAKIAK BEHERA, ARIKETA ONDO EGITEARI EMATEN DIOGU GARRANTZIA"

"DIRU LAGUNTZETAN ETA PROGRAMEN FINANTZAZIOAN EZ DUGU ALDAKETARIK AURREIKUSTEN"

Guk ez dugu Euskaraldiaren arrakasta zenbakietan oinarritzen eta zenbakiak gora, zenbakiak behera, ariketa ondo egiteari ematen diogu garrantzia. Pandemia honek ekarri dizkigun bizimodu berrien eta oztopo guztien gainetik, Euskaraldia egitea lortu dugu. Eta alde horretatik, irakurketa ezin positiboagoa egiten dugu.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan zenbat arigune sortu dituzue? Zenbat kidekoak?

Gaur-gaurkoz, Eusko Jaurlaritzan eta bere erakunde autonomoetan 164 *arigune* sortu ditugu. Kopuru aldetik guztiz ezberdinak: batzuk bizpahiru lagunekoak, eta beste batzuk, HPSren kasuan bezala, 45ekoak. HPS sailean, bere ezaugarri bereziengatik, 45 lagunok osatutako *arigune* bakarra osatzea erabaki genuen.

Pandemiak eragin duen egoerari helduko diogu berriro, ikuspuntu orokorrago batetik. COVID-19ak zer nolako eragina izango du Euskaraldiaz gain martxan dituzuen egitasmoetan? Eta etorkizunean garatzea aurreikusita zenituztenetan? Euskara sustatzen jarraitzeko lan hori galga dezake?

Aurrekontuen lanketan ari garen arren, diru laguntzen eta programen finantziazioen aldetik aldaketarik ez egotea aurreikusten dugu baina, egoera honetan, tamalez diru laguntzak bermatzeak ez ditu pandemiaren ondorioak murriztuko. Aisialdia, hedabideak, arlo soziekonomikoa... Egoera berri honetara moldatu beharko dituzte euren jarduerak eta guk horretan lagundu nahi dugu. Mundu mailako krisiari euskaraz egingo diogu aurre. Horixe da euskaldunok euskara erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria: gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Genero indarkeriaren aurka kontzientziatzen

Adin ezberdinetarako ekimen ugari antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak Genero Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira. Besteak beste, azaroaren 25ean, genero indarkeria gaitzesteko elkarretaratzea egingo dute Okendo plazan, 12:00etan

Txintxarri

Genero indarkeriaren aurkako eguneko egiratauari hasiera emateko, asteartean, Manuel Lekuona kultur etxean Kontu Kantoiko lagunek *Hori zuk ezin duzu egin. Zergatik?* saioa eskaini zieten 7 eta 8 urte arteko gaztetxoei.

Atzo, berriz, Zinegoak, Bilboko Gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdiko film laburren emanaldia izan zen, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Ez dira hauek ekimen bakarrak izango, udal ordezkariek asteazkenean azaldu zuten moduan. Gaur, azaroak 20, 18:00etan, gazteen arteko harremanei buruzko gaiak lantzeko bideo-foruma antolatu dute, Gaztelekuan.

Kultura sailarekin elkarlanean, *Cholitas* filma ikusi ahalko da igandean, azaroak 22, helduen zinema atalean.

Genero indarkeriaren egunean, berriz, eguerdian elkarretaratzea izango da Okendo plazan. Udal ordezkariek herritar guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

Azaroaren 27an, ostirala, Dinamika-Eguzki Zubiak *El 3er acto* monologoa eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxean.

Udal ordezkariak Genero indarkeriaren aurkako eguneko egitaraua aurkezten. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Beldur Barik lehiaketako sari banaketa ere izango da egunotan. Nahiz eta udalak Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan ekitaldia aurreikusi azaroaren 26an, data eta lekua alda daitezkeela azaldu zuten Berdintasun teknikariek. "Aurten parte-hartzeak behera egin du nabarmenki eta lan bakarra aurkeztu da. Haiekin jarriko gara harremanetan eta ostegunean posible izango ez balute, Zentro Zibikoan egingo genuke ekitaldi xumeagoa".

Horrez gain, ekintzetan parte hartzen duten herritarrei *Errespetuz jokatu* leloa duten maskarak eta pegatinak banatuko dizkiete. Haurrentzako zein helduentzako maskarak izango dira.

Era berean, azken urteetan bezala, Lasarte-Oriako hainbat txokotan emakumeen siluetak ikusgai izango dira genero indarkeriak herrian zein Euskal Herrian izan dituen datuak jakinarazteko.

Teknikariek azaldu zutenez, Espainiar Estatuan datuek behera egin duten arren, Lasarte-Orian 2020. urtean gora egin dute; 23 atestatu egin dira, hamabi denuntzia eta 37 urruntze-agindu ezarri dira. Gainera, egun 102 urruntze-agindu indarrean daudela jakitera eman dute.

Horregatik, Berdintasun sailak arreta psikologikoa eskaintzen duela gogorarazi zuten udal ordezkariek.

Aterpearekin hitzarmena

Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea merkatarien elkarteak asteon sinatu dute lankidetza hitzarmena. Ostegun eguerdian bildu dira elkarteko lehendakari Miguel Angel Prieto eta Ana Laureano lehendakariordea udaleko ordezkariekin. Jakinarazi dutenez, 25.000 eurorekin lagunduko du udalak 2020. urteko merkatarien elkartearen jarduna. Eskertza hitzak helarazi dizkiote elkarri, sinadura ekitaldian.

TXINTXARRI

Spora Ingurumen Zerbitzuko ordezkaria eta alkatea, kanpainaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Hondakin organikoen bilketari bultzada berria emateko kanpaina

Lau astez, 5. edukiontziaren erabilera sustatzeko kanpaina berria egingo da Lasarte-Orian

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 5. edukiontziaren erabilera sustatu eta frakzio organikoaren bilketa handitzeko kanpaina berri jarriko du martxan. Alkate Agustin Valdiviak eta kanpaina berriaz arduratuko den Spora Ingurumen Zerbitzuetako Myriam Estebanek azaldu dituzte ekimen berriaren nondik norakoak.

Agustin Valdivia alkateak kontzientziazio kanpainaren zergatia azaldu du. " 2020. urtean Lasarte-Oriako Udalak gaikako bilketa %60ra iristeko helburua zuen jarrita. Egun %45ean gaude; oso urruti".

Horrez gain, alkateak nabarmendu duenez 2020. urtean beherakada handia izan da hondakin organikoen bilketan. "Nahiz eta 2019. urtean baino 262 erabiltzaile gehiago izan, urte honetan 31.500 kilo gutxiago bildu dira". Udalak aztertu beharko duen gertakaria dela azaldu du.

Ekimenak

Myriam Esteban Spora Ingurumen Zerbitzuetako ordezkariak azaldu duenez, difusio kanpaina bat egingo dute lehenik. Kartel informatiboak jarriko dira kalean eta herritarrei hondakin organikoak botatzeko 5. edukiontzia erabiltzeko gonbitea egingo zaie eskutitz bidez.

Kalean ere egongo dira. Azaroaren 23tik abenduaren 19ra, astelehenetik larunbatera puntu informatibo bat jarriko dute goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara. Nagusiki Okendo plazan egongo da puntua. Baina asteazkenetan Andatza plazako azokan egongo dira, 11:00etatik 14:00etara eta abenduaren 4an, Brigitarren komentu aurreko plazan egun osoz.

Puntu informatibo horretan 5. edukiontziaren erabilerari buruzko informazioa banatzeaz gain, izena ematen duten pertsonentzako kitak ere egongo dira: 5. edukiontzia irekitzeko txartelak; konpostagarriak diren poltsak; ontzi marroia; eta iman bat. Estebanek azaldu duenez, oraingoan ohiko kitari imana batu diote. "Iman hori herritarrek eskura izan dezakete gida modura, 5. edukiontzian zer bota dezaketen azaltzen baitu".

Horrez gain, hondakin organikoa bereizten ez duten herritarrei 5. edukiontzia erabiltzeko gonbita eginez deituko zaie etxera.

Eta herritarren eskura kezkak azaltzeko 647 05 74 02 telefonora deitu ahalko dutela ere jakitera eman dute.

Kanpaina honekin 5. edukiontziaren erabilera areagotzea eta gaikako bilketako helburua "laster" eskuratu ahal izatea espero du Lasarte-Oriako Udalak.

Jalguneren XIV. jaialdia, herrian 'Esklusiban!'

Pandemiak ekarritako mugak gaindituz, eta neurrietara egokituz, Jalgune elkarteak ospakizun berezia egingo du azaroaren 28an kultur etxean. Ekitaldira joan ezin dutenek bideo-emanaldia ikusi ahalko dute abenduaren 3an, Manuel Lekuonan bertan, 18:30ean

Prentsaurrekoan Jalguneko kideek eta udal ordezkariek parte hartu dute. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Jalguneren jaialdia kultur agendan apuntatzea arraroa izango zen hasierako urteetan herritarrentzat, baina hitzordua ohiko bilakatu da urteen poderioz. "Berezia", Jalguneko lagunek aurkezpen prentsaurrekoan azpimarratu dutenez. "Zerk egiten du zerbait berezi? Arruntetik desberdintzen den hark. Zeintzuk dira gure jaialdia definitzen duten aparteko ezaugarriak? Begi hutsez ikusten ez diren gaitasunak, apartekoak".

Apartekoa izango da baita ere aurtengo jaialdia, XIV. edizioa. "Lasarte-Orian egiten da soilik eta saio bakar batean; edizio mugatuan, *Esklusiban!* ". Pandemiak eragindako egoera tarteko, "inoiz baino mugatuagoa" izango da aurtengo ospakizuna, "pertsona kopuruan eta besarkada eta musuetan". Dena dela, Jalgunek ohartarazi du, zerbaitetan adituak badira, dela ezarritako mugak gainditu eta egokitzean. Azaroaren 28an frogatuko dute hori, kultur etxean, 18:00etatik aurrera.

Arraroa, edo normala?

Hausnartzeko moduko gogoetak plazaratu dituzte Jalguneko kideek prentsaurrekoan. Adibidez, hau: "Arraroa edo normala izatearen alde hautatzeko aukera bazenu, zer nahiago zenuke?". Elkarteko lagunen iritziz, gizakiok sentitu beharra dugun arren gainerakoek berdintzat onartzen gaituztela, desberdin pentsatzeak edo jokatzeak ez luke oztopo izan behar. "Gizabanako gisa garatzeko ezinbesteko tresna da ezberdina izatea: izakiak bakarrak gara eta hori da gure erakargarritasun eta botere handiena".

Jalguneko kideek adierazi dute "oztopoz eta mugaz betea" izaten ari dela 2020. urtea, baina badaudela elementuak traba horiei aurre egiten laguntzen diotenak gizarteari. Esate baterako, maskarak. Kool estudioarekin eta Janire Arroyo herritarrarekin batera, *#gaigara* maskaren edizio mugatua prestatu du elkarteak. "Janirek goraka egiten duten pertsonak islatu nahi izan ditu diseinuan; mugak gainditzeko gai direnak". Elkartearen Facebook eta Instagram kontuen bitartez eska daitezke azaroaren 28ra arte, edo jaialdian bertan erosi.

Jalgune eta Txintxarri-ko kideak lankidetzan aritu gara aurten ere. Gu arduratu gara kartelerako argazkiak ateratzeaz eta diseinuaz, eta azaroaren 28ko jaialdia bideoz grabatuko dugu, Jalgunek ikusentzunezkoa abenduaren 3ko emanaldian eskain dezan. Eskerrik asko aukera emateagatik, Jalgune!

Sahararrei elkartasuna adierazteko taldea, lanean

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oriak kontzentraziora deitu du gaur, hilak 20, 19:30ean Okendo plazan

Txintxarri

Herritar batzuek Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldea sortu dute berriki, bertan pairatzen ari diren egoeraren aurrean elkartasuna adierazteko. Lanean hasi dira honezkero, eta bi deialdi egin dituzte: elkarretaratzea egingo dute Okendo plazan gaur, azaroak 20, 19:30ean Okendo plazan. Lasarteoriatarrak animatu dituzte euren negozio, denda, etxe eta bestelakoetan SEAD Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren banderak jartzera, elkartasun keinu gisa. "Egoera gogor honetan ere sahararrekin bat egingo dugu; ez ditugu bakarrik utziko".

Taldearen prentsaurrekoa. TXINTXARRI

Marokoko erreinuko armada Guerguerat eskualde desmilitarizatuan –Mendebaldeko Sahararen eta Mauritaniaren arteko mugan dago– sartu zen duela egun batzuk, saharararrak egiten ari ziren protesta bat desegiteko; eskualde horretan dagoen errepidea trabatzen ari ziren manifestariak. Herrialde okupatzailearen eta okupatuaren arteko tentsio militarrak gora egin du, eta gerra hotsak gero eta ozenagoak dira.

Testuinguru horretan, lasarteoriatar batzuek Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Orian taldea sortu dute, saharararrak pairatzen ari diren egoeraren aurrean elkartasuna adierazteko. "45 urte pasa dira Marokoko erreinuak suz eta errepresioz Mendebaldeko Sahara okupatu zuenetik, Espainiako gobernuak beste aldera begiratzen zuen bitartean. Urte guzti hauetan eguneroko ogia izan dira saharararrentzat eskubide zibilen urraketak, torturak, errepresioa eta erailketak".

Taldea sortu berria izanagatik, buru-belarri lanean ari dira eta antolatu dituzte aurreneko elkartasun ekintzak herri mailan. Bizilagunen batek haiekin lan egin nahiko balu, berakekin harremanetan jar daiteke *Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria* Facebook orrialdera idatzita. "Mendebaldeko Saharan gertatzen ari dena herrian zabaldu nahi dugu, eta datozen aste eta hilabeteetan saharararrek izan ditzaketen beharrak eta premiak asetzen lagundu".

TXINTXARRI

Egoera zailaren berri, azokan

Lasarte-Oriako ostalariek bizitzen ari diren eguneroko zaila bistarazten jarraitzen dute. Asteazkenean Andatza plazako azokan bildu dira protesta ekitaldia egiteko. Goizeko 10:30erako puntu-puntuan bildu dira Lasarte-Oriako ostalariak merkatuan. "Oso egoera larrian" daudela gogorarazteko batu dira protestan eta baita azokan bildutako herritarrei bizitzen ari diren egoeraren berri emateko ere. Bozgorailutik entzun dira gaur ere sirena hotsak eta aldarriak, eta eskuorriak banatu dizkiete azokara gerturatu direnei.

Adierazi dute ez direla gai bigarren itxialdiari aurrea hartzeko, eta, laguntzak jaso ezean, negozio asko "behin betiko" itxi beharko dituztela eta horrek lanpostu askoren galera ekarriko duela azpimarratu dute. Lasarte-Orian ostalaritza motore ekonomiko "sendoa" dela ere gogorarazi dute, nabarmenduz 450 lanpostu zuzen mugitzen dituela zuzenean. Datozen egunetarako ere iragarri dituzte mobilizazio berriak. Larunbatean karabana egingo dute Hopodromotik abiatuta 11:00etan, eta manifestazioa igandean, 17:00etan, Okendo plazatik abiatuta.

Arteaga II.ak, Promozio txapelketan aurrera

Final-laurdenean, Zabalari 7-22 irabazi zion. Guztiz osatua egon ez arren, lasarteoriatarrak garaipena lortu zuen. Gaur, finalerako txartela izango du jokoan. Salaberria izango du arerio eta partida gogorra iragarri du Arteaga II.ak

Txintxarri

Axier Arteaga Arteaga II.ak, Promozio mailako buruz buruko txapelketa ederki hasi du. Ostiralean, azaroaren 13an, Zabala garaitu zuen 7-22. Finalaurrekoan Salaberria izango du aurrez aurre, gaur, ostirala, Bergaran, 22:00etatik aurrera.

Promozio txapelketa hasi zen lehengo asteburuan eta Axier Arteaga herritarrak ez du nahi adina prestatu ahal izan. Urriaren 2an, ezker eskuko hatza hautsi zuen eta gutxi entrenatu ahal izan du. Hatza oraindik ez dago osatua Arteagak azaldu digunez, baina medikuaren baimenarekin kapsula berezi batekin jokatu zuen ostiralean.

Partida gogorra espero zuen herritarrak Zabalaren aurka. Uste baino errazago joan zela onartu eta Zabala oso urduri hasi zela nabarmendu du Arteaga II.ak. "Akats asko egin zituen eta horri esker, aldea atera nion".

Egoeraz baliatu zen herritarra. "Txapelketako lehen partida izanda, nahiko tentsiorekin hasi nintzen. Baina partidan mantentzen jakin nuen. Hemezortzigarren tantotik aurrera, partida nahiko bideratua ikusi nuenean, lasaitu nintzen eta orduan, azken tantoetan, gozatu nuen". Eta garaipena erdietsi zuen.

Axier Arteaga, Arteaga II.a, artxiboko irudian partida jokatzen. TXINTXARRI

Finalaurrekoa

Gaur, berriz, finalaurrekoan Salaberria izango du arerio. Partida gogorra aurreikusten du herritarrak. "Ostiralean, bere partidan ikusi ahal izan zen bezala, Salaberria arerio oso gogorra da. Lautik aurrera pilota harrapatzen duenean artista da, segituan tantoa amaitzen du. Kontraerasoan ere min handia egiten du. Arerio arriskutsua da".

Hori dela eta, Arteaga II.ak argi du bere estrategia, Salaberria atzeko koadroetan edukitzen saiatuko da. "Ahal dudanetan, aurreratu eta tantoa amaituko dut".

KANPORAKETA SISTEMAREKIN TXAPELKETATIK AT GERATZEA POSIBLE DELA ARGI DU

Berrikuntzak

COVID-19ak eraginda, Promozio mailako buruz buruko motza izango da aurtengoa. Finallaurdenak jokatu dira dagoeneko eta finalaurrekoak eta finala geratzen dira jokatzeko. Aurrez sailkapen partida bat egon dela ere azaldu digu herritarrak. "Erasunek eta Larrazabalek jokatu behar izan zuten".

Hain txapelketa motza izateagatik, txapelketako partida bakoitzean ehuneko ehuna emango duela aitortu du herritarrak. "Nire esku dagoen maila altuena eman nahi dut".

Nahiz eta hori egin, txapelketatik kanpo geratzea posible dela argi du Lasarte-Oriako pilotariak. Izan ere, partida bakarrera jokatzen baita guztia.

"Txapelketa irekiagoa da. Partida bakarrera edozeinek dauka irabaztea eta egun txar bat edozeinek izan dezake eta besteak ona. Galtzea tokatzen bada, egin dudan partidarekin gustura egotea eta ikasten jarraitzea dira nire helburuak", azaldu du Arteaga II.ak.

Buruz buruko nagusiaren antzera, moldaketa batzuk ere izan ditu promozio mailako txapelketak. Arteaga II.aren jokoan eragin handien duena, pasako marra sei eta erdira aurreratu izana da. "Sakea aldarazi dit. Ni sakeak luze ateratzekoa naiz, ez daukadalako besteek duten indar hori sakea egiterakoan. Luze horrekin arrisku gehiago hartu behar dituzu. Baina batzuetan indar gehiagorekin eta motzean jokatzea komeni da".

Horrez gain, partidak ezin atzeratzeak ere eragina duela aipatu eta astean zehar oraindik gehiago zaindu behar dela nabarmendu du. "Segurtasun neurriak gehiago zaindu behar dira. Konfinatuta egon beharrez gero, pena handia izango litzateke txapelketa utzi beharra".

Curillines izan zen bigarren lasterketan garaile. TXEMA VALLES

Udazkeneko lehen jardunaldiak, nabarmentzeko gutxi

Bosgarren lasterketan izan zen aipatzeko ekintza bakarra: Cocklinak Vouch faboritoa garaitu zuen

Txintxarri

Donostiako Hipodromoko udazkeneko denboraldiari hasiera eman zitzaion, azaroaren 13an.

Jardunaldiko lehen lasterketan, Janacekek Arizkorretaren Tito zaldia eraman zuen podiumeko lehen postura. Bigarrenean, berriz, Avial prestatzailearen Curillinesek eraman zuen saria Armand hockeyaren eskutik. Hirugarrenean, Sison eta Gelabertek lortu zuten helmugan lehenak izatea. Udako denboraldiko hainbat saritan bezala, Pereiraren Iron Rockek irabazi zuen laugarren lasterketa oraingoan Nicolas de Julianek zuzenduta.

Ezusteko handiena bosgarren lasterketan izan zen. Vouch faboritoa azken zuzengunean lehen zihoan arren, atzetik Cocklina iritsi eta azken metroetan garaipena eskuetatik kendu zion.

Garaipena Madrilen

Lasarte-Oriako Raul Ramos hockeyak hiru lasterketetan parte hartu zuen lehen jardunaldi honetan eta lehen sarian lortu zuen posturik onena. Pereirak prestatzen duen Grilo zaldiarekin hirugarren izan zen.

Igandean, berriz, Madrilgo La Zarzuelako hipodromoan kendu ahal izan zuen arantza. Habit saria irabazi zuen Vetona behorra gidatuta.

Realak puntuak metatzen jarraitzen du Iberdrola Ligan

Sporting De Huelva garaitu du talde txuri-urdinak; Añorga KKEk ezin izan du Arratiaren aurka jokatu

Txintxarri

Real Sociedad taldeak garaipen berria erdietsi zuen igandean, azaroaren 15ean, Sporting de Huelvaren aurka, 1-0.

Natalia Arroyoren taldeak pazientzia izan zuen. Nagusi izan ziren lehen zatian, baina ateari begira ez zuten zorterik izan. Arerioak ere ez zuen apenas arriskutik sortu.

Bigarren zatian ere indartsu hasi zen Reala eta kontrolpean izan zuten partida. Huelvarren hutsegite batean iritsi zen gola. Tartea handitzeko aukerak ere izan zituzten, baina baloiak ez du atean sartu nahi izan.

Añorgak, ezin jokatu

Añorgak berriz, Arratiaren aurka jokatu behar zuen partida atzeratu behar izan dute bigarrenez, Bizkaiako taldean COVID-19 kasuak egoteagatik.

Nahiz eta Nazional mailako taldeek atseden izan, bi taldeek txapelketako lehen jardunaldiko norgehiagoka jokatu behar zuten asteburuan, baina ez da posible izan. Azaroaren 29an saiatuko dira berriro.

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN EZ ZAITEZ IKUSLE HUTS BAT IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.

NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:

berdintasuna.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

ZORION AGURRAK

Javitxu
Zorionak artixta! 69 urte!!! Zenbaki katxondoa!!! Ondo ospatu eta aprobetxa metxa! Muxu bat familiaren partetik!

Linda
Zorionak zure 3. urtebetetzean printzesa!! Muxu goxo pila etxekoen partetik.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 20
Min. 08º Max. 13º

Larunbata, 21
Min. 07º Max. 13º

Igandea, 22
Min. 08º Max. 16º

Astelehena, 23
Min. 09º Max. 15º

Asteartea, 24
Min. 09º Max. 16º

Asteazkena, 25
Min. 10º Max. 15º

Osteguna, 26
Min. 09º Max. 14º

JAIOTAKOAK

Luka Macias Recondo. Azaroaren 14an.
Iare Retegui Garcia. Azaroaren 13an.

HILDAKOAK

Ninfa Mendez Felipe. Azaroaren 17an.
Alberto Calvo Ruiz. Azaroaren 16an.
Jose Luis Iturri Gamboa. Azaroaren 14an.
Andres Campos De La Viuda. Azaroaren 13an.
Jorge 'Gotxo' Perez Iturria. Azaroaren 13an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 20	DE MIGUEL
LARUNBATA, 21	DE ORUE
IGANDEA, 22	DE ORUE
ASTELEHENA, 23	LASA
ASTEARTEA, 24	GIL
AZTEAZKENA, 25	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 26	URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani / 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (*www.cofgipuzkoa.com*).

SUDOKUA

		9	6	8		7		
7	6			1	9	8	4	
8		1		7				5
		8			4		7	
5	9	4	7	3				8
6		7			8	3	9	
1	7					2		
		2	9	5			3	1
9			2	6	1			7

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Baratzeko lanak egin edo pertsona helduak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia, 627 20 61 10.

Pertsona helduak zainduko nituzke. Interna moduan edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona helduen zaintzan lan bila nabil. Interna edo orduka izan daiteke. Harremanetarako zenbakia, 666 09 67 61.

Neska euskaldun bat eskaintzen da astean behin eta arratsaldez etxeko lanak egiteko. Nire telefonoa: 646 48 58 11

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

ETXEBIZITZAK

EROSI

Apartamentu txiki bat bilatzen ari naiz erosteko, Lasarten. Logela batekin nahiko. Igoigailuarekin. Ez dut nahi atikoa ezta lofta ere ez. Nire telefonoa 660 55 23 53 da.

IKASTAROAK

ESKARIA

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 63 03 13. *bentley.ma@gmail.com.*

Txokoalden, tren geltoki zaharrean, txalaparta klaseak ematen ditut. *tagoredoremi@gmail.com* edo 678 07 10 41 (WhatsApp ez).

SALEROSKETA

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 82 44 66.

OHARRA

Zuberoko ikastolen Gabonetako saskiak

2003tik, Zuberoko ikastolek gabonetarako saskiak prestatzen dituzte tokiko ekoizpenekin. Ipar Euskal Herrian euskarak ez du babes ofizialik. Euskararen etxeko transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, ikastolek euskararen transmisioa bermatzen dute.

Ekimenaren helburuak bi dira Zuberoko ikastolak laguntzea eta Zuberoko ekoizpenak ezagutaraztea eta dastaraztea.

Hiru saski mota daude: *Ahüzki*, 40 euro; *Irati*, 55 euro eta *Orhi*, 70 euro. Saskien zehaztasun guztiak eta eskaerak *www.ikaskoli.eus* orrialdean egingo dira. Bertan agertzen dira saskien banaketa guneak ere.

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose Lanchas, Iñigo Garcia eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Txintxarri-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LASARTE-ORIA Akordeoi jaialdia. Zero Sette akordeoi orkestrak Akordeoi jaialdiaren 34. edizioa antolatu du. Akordeoia izango da protagonista eta biolontxeloa, zeharkako flauta eta fagota izango ditu lagun Adelaida bikotea eta Ad líbitum hirukoaren eskutik. Adelaida bikotea Rebekka Riedel biolontxelista eta Mateja Zenzerovic akordeoilari alemaniarrek osatzen dute. Bikoteak egitarau zabala eskainiko du, barrokotik hasi eta gaur eguneko musikaraino. Ad Libitum hirukoak berriz, Jean Baptiste Brevalen klasizismo frantsesetik Georg Friedrich Händelen musika barrokora daraman egitaraua aurkeztuko du. Eneko Sota Zabaleta akordeoilari gazteak eskarmentu handiko bi musikari izango ditu alboan, Carlos Rosat (zeharkako flauta) eta Tomas Ruti (fagota) herritarrak. Sarrera, 5,50 euro.
Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata 21, 19:00etan.

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA Bideo-foruma
Gazteen arteko harremanei buruzko gaiak lantzeko bideo-foruma egingo da. Genero indarkeriaren aurkako eguneko egitarauko ekimena.
Gaztelekua, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea
Saharan bizitzen ari diren egoera salatzeko elkarretaratzea egingo da.
Okendo plaza, 19:30ean.

LARUNBATA 21

LASARTE-ORIA Solasaldia
Espetxe politikaren behatokiko ordezkari Teresa Todak eta Maider Galardi kazetariak *Aislamentua eta gradu aldaketarako oztopoak. Jabi Gallaga Lasartearraren egoera Cordobako espetxean* solasaldia izango dute. Sare herritarrak antolatutako ekimena.
Udal Euskaltegiko hitzaldi aretoa, 10:30ean.

LASARTE-ORIA Argazkia
Sare herritarrak deituta argazki kolektiboa egingo da. *Izan bidea* ekimenaren barruko mobilizazioa.
Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Sari banaketa
Lasarte-Oriako XXXIII. Haur eta Gazteen, zein Helduen XXXIV. Literatura-lehiaketetako sari banaketa egingo da.
Manuel Lekuonako hitzaldi aretoa, 12:00etan.

ASTEAZKENA 25

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea
Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean elkarretaratzea egingo da.
Okendo plaza, 12:00etan.

OSTEGUNA 26

LASARTE-ORIA *Hizki Hozka*
Hizki hozka egitasmoaren lehen saioa egingo da. HH3 eta HH4 mailako txikientzat eta euren familiako kideentzat irakurketaz gozatzeko tarte atsegina zuzenduko du Intza Alkainek. Egoera dela eta, hamar familiek parte hartu ahalko dute. Izena ematea *aisia@ttakun.eus* helbidean edo 695 785 392 WhatsApp zenbakian.
Ttakunenea, 17:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA
MANUEL LEKUONA
Ane
Ostirala: 19:00.
Cholitas
Igandea: 19:30.

HERNANI
BITERI
Erlauntza
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.
Astelehena: 16:30.

Pirata arratoia
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

ANDOAIN
BASTERO
El palacio ideal
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.
Astelehena: 19:00.

Stardog y Turbocat
Larunbata: 16:30
Igandea: 16:30.

LABURPENA

'Ane'
Zuzendaria: David P. Sañudo. **Gidoia:** David P. Sañudo, Marina Pares. **Argazkia:** Victor Benavides. **Musika:** Jorge Granda. **Herr.:** Espainia (2020). **Antzezleak:** Patricia Lopez Arnaiz, Mikel Losada, Jone Laspiur, Aia Kruse, Luis Callejo, Nagore Aranburu, Gorka Aguinagalde, Fernando Albizu, David Blanka, Iñaki Ardanaz. **Iraupena:** 100 minutu.

Ezezagun batekin bizitzen

Okendo Zinema Taldeak Euskaraldiarekin bat eginez, *Ane* filma eskainiko du Zineforum atalean. COVID-19aren aurkako neurriak direla eta, filmaren emanaldia 19:00etan hasiko da.

David Perez Sañudo zuzendariaren lehen lan luzea da filma. Donostiako Zinemaldian zuzendari berrien atalean ikusi ahal izan zen eta Irizar saria eskuratu zuen.

2009. urtean Gasteizen kokatzen da *Ane* filmaren istorioa. Lide segurtasun-zaintzailea da; abiadura handiko trenaren obretan egiten du lan. Egun batean, gaua festan igaro ondoren etxera itzultzen da eta bere alaba nerabea, Ane, etxean ez dagoela konturatzen da. Lide lasai dago, ziurrenik, aurreko egunean izandako eztabaida gogorraren ondorioz desagertuko zelako. Hurrengo egunean ere ez da agertzen eta bere bila hasiko da. Aneren gauzen artean bilatzen, konturatuko da ez duela benetan bere alaba ezagutzen.

Ane filma jatorriz euskaraz grabatua dago eta, lagungarri gisa, gaztelerazko azpidatziak izango ditu.

LASARTE-ORIAN

EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari: Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

AHOBIZI:

Elkarrizketa elebidunetan, euskaraz: Komunikazioa bermatuta dagoenetan, eutsi euskarari.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

BELARRIPREST:

Adierazi euskararekiko prestutasuna: Jakinarazi solaskideei euskara jaso nahi duzula eta, zeuk ere nahi eta ahal beste erabili. Zure euskara da euskararik onena.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Eutsi euskarari!:

Ekin (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).

Egin lekua euskarari:

Adierazi (euskara ulertzen duzula eta jaso nahi duzula), **ekin** (ahal eta nahi duzunean euskaraz hitz egin), **jakinarazi** (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko eskatu).

www.euskaraldia.eus